TOLOSA

Tolosako Udalaren Energia-jarduketen Plan Orokorra

2026ko irailaren 29a

globalfactor

Aurkibidea

1. Sarrera 5
2. Aplikazio-eremua 6
3. Jarduketen koordinazioa: Jasangarritasun energetikoaren batzordea 8
4. Energia-diagnostikoa 9
   4.1. Tolosako udalaren energia-kontsumoa 9
   4.2. Eraikin eta instalazioen energia-kontsumoa 17
   4.3. Argiteria publikoaren energia-kontsumoa 20
   4.4. Ibiligailuen energia-kontsumoa 21
   4.5. Energia berriztagarriak 23
   4.6. Lehendik dauden eraikinen kalifikazio energetikoa 27
5. Energia-jarduketen plana 28
   5.1. Energia-kontsumoaren oinarrizko erreferentzia maila 28
   5.2. Energia-jarduketen unitateen definizioa 30
   5.3. Energia-kontsumoa 2030. urterako proiekzioa (BaU) 31
   5.4. Helburuak 32
   5.5. Energia-jarduketak 33
   5.6. Helburuen lorpena 2030. urtean planarekin 34
6. Beste jarduketak eta planak 36
   6.1. Eraikin berrien eta eraberritze integralak jasan behar dituzten eraikinen kalifikazio energetikoa 36
   6.2. Eraikin eta instalazioen auditoretza energetikoak 37
   6.3. Energia-jarduketen unitateen Energia-jarduketen Berariazko Planak 38
   6.4. Heziketa eta sentsibilizazio-planak 40
   6.5. Komunikazio- eta Gardentasun-plana 42
7. Planaren aurrekontua eta finantziazioa 44
8. Jarduketen plangintza eta programazioa 45
9. Energia-jarduketen fitxak 55
10. Eranskinak 57
I. Eranskina: Eraikin eta instalazio, argiteria publikoa eta ibilgailuen inbentarioak 57
II. Eranskina: Eraikin eta instalazio, argiteria publikoa eta ibilgailuen kontsumoa eta gastua 2019-2025 67
III. Eranskina: Eraikinen kalifikazio energetikoa 68
IV. Eranskina: Energia-jarduketen Berariazko Planak 79

Taulen aurkibidea

Taula 1. Tolosako Udalaren inbentario energetikoaren laburpena 10
Taula 2. Tolosako Udalaren energia-kontsumoa erregai bakoitzeko 13
Taula 3. Energia kontsumoa eraikin eta instalazioetan erregai mota bakoitzeko banatuta 18
Taula 4. Ibilgailuak eremuaren energia-kontsumoa erregai mota bakoitzeko banatuta 21
Taula 5. Argindarraren sorkuntza Tolosako Udalaren instalazio fotovoltaikoetan 23
Taula 6. Argindarraren kontsumoa Tolosako Udalean eta kontsumo mota 24
Taula 7. Biomasa kontsumoaren eboluzioa 25
Taula 8. Energia berriztagarria kontsumoaren eboluzioa eta erregai mota 25
Taula 9. Energia berriztagarria kontsumoa amaierako energia-kontsumoan Tolosako Udalean 2025. urtean 26
Taula 10. Tolosako Udalaren kontsumo energetikoa inbentarioaren eremuetan eta erregai bakoitzeko oinarrizko erreferentzia-mailan 28
Taula 11. Energia-jarduketa unitateen definizioa 30
Taula 12. Tolosako biztanleriaren eboluzioa eta proiekzioa 2030. urterarte 31
Taula 13. Tolosako Udalaren energia-kontsumoa oinarrizko erreferentzia mailan 34
Taula 14. Tolosako Udalaren energia-kontsumoa 2030. urtean neurriekin 34
Taula 15. Bigarren helburuaren lorpena 2030. urtean 35
Taula 16. Energia-auditoretzen zerrenda 37
Taula 17. Energia-jarduketa unitate bakoitzaren kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan 38
Taula 18. Energia-jarduketen Planaren aurrekontua eta finantziazioa adierazteko taula 44
Taula 19. Energia-Jarduketen Berariazko Planen plangintza (martxan jarri ez diren jarduketak) 51
Taula 20. Jadanik martxan jarri diren jarduketak 52
Taula 21. Tolosako Udalaren Energia-jarduketen Plan Orokorraren plangintza 53
Taula 22. 2x22 kW AC kargagailu berriak 53
Taula 23. 50 kW DC kargagailu berria 54
Taula 24. Energia-jarduketen fitxa eredua 56
Taula 25. Tolosako Udalaren eraikinen inbentarioa 59
Taula 26. Tolosako Udalaren instalazioen inbentarioa 61
Taula 27. Argiteria publikoaren inbentarioa 63
Taula 28. Tolosako Udalaren ibilgailuen inbentarioa 64
Taula 29. Tolosako Udalaren Instalazio fotovoltaikoen inbentarioa 66
Taula 30. Efizientzia energetikoaren ziurtagirien kalifikazioa 78

Irudien aurkibidea

Irudi 1. Tolosako Udalaren kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan eremu bakoitzeko 11
Irudi 2. Tolosako Udalaren kontsumoa eremu bakoitzeko 2025. urtean 12
Irudi 3. Tolosako Udalaren kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan eremu bakoitzeko 12
Irudi 4. Tolosako Udalaren energia-kontsumoaren eboluzioa erregai mota bakoitzeko 13
Irudi 5. Tolosako Udalaren argindar kontsumoaren eboluzioa 14
Irudi 6. Tolosako Udalaren gas naturala kontsumoaren eboluzioa 14
Irudi 7. Tolosako Udalaren diesela kontsumoaren eboluzioa 15
Irudi 8. Tolosako Udalaren gasolina kontsumoaren eboluzioa 15
Irudi 9. Tolosako Udalaren biomasa kontsumoaren eboluzioa 16
Irudi 10. Eraikinak eta instalazioak eremuaren energia-kontsumoaren eboluzioa 17
Irudi 11. Energia kontsumoaren eboluzioa eraikin eta instalazioetan erregai mota bakoitzeko banatuta 18
Irudi 12. Kontsumo handieneko eraikinak 2025. urtean 19
Irudi 13. Argietaria publikoa eremuaren energia kontsumoaren eboluzioa 20
Irudi 14. Ibilgailuak eremuaren energia-kontsumoaren eboluzioa 21
Irudi 15. Ibilgailuak eremuaren energia-kontsumoaren eboluzioa erregai mota bakoitzeko banatuta 22
Irudi 16. Tolosako Udalaren kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan inbentarioaren eremu bakoitzeko 29
Irudi 17. Usabal Polikiroldegian eta gainerako eraikin eta instalazioen kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan 29
Irudi 18. Tolosako Udalaren kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan eremu bakoitzeko 31
Irudi 19. Tolosako Udalaren kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan eremu bakoitzeko 32
Irudi 20. Lehenengo helburuaren lorpena 2030. urtean 35
Irudi 21. Energia-jarduketa unitate bakoitzaren murrizpenaren portzentaia 39

1. Sarrera

Larrialdi klimatikoaren egungo egoerari aurre egiteko, nazioarte mailan hainbat neurri bultzatu dira. Horien artean, berotegi-efektuko gasen isurketen kopurua murriztea beharrezkotzat jo da. Gure energia kontsumoaren matrizeak mendekotasun nabarmena du jatorri fosileko erregaiekiko. Eta, hain zuzen ere, erregai fosilak isurketa hauen erantzule nagusia dira. Beraz, emisio horiek murrizteko, ezinbestekoa da erregai fosilen kontsumoa murriztea. Gainera, kontuan izan behar da erregai fosilak berriztaezinak direla. Hori dela eta, hurrengo belaunaldientzat energia berriztagarri eta nahikoaren hornikuntza ziurtatzea funtsezkoa bihurtzen da.

Berotegi-efektuko gasen isurketa neutroa 2050ean lortzea helburu bezala ezarri da nazioarte mailan, 2100 urterako planetaren tenperatura 1,5 gradu baino gehiago ez igotzeko.

Eusko Legebiltzarrak 4/2019 Legea onartu zuen, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa. Lege honek administrazio publikoen eremuko jasangarritasun energetikoaren arau-oinarriak ezartzen ditu. Aldi berean, sektore pribatuan efizientzia energetikorako eta energia-aurrezpeneko neurriak bultzatzean eta energia berriztagarriak sustatzean eta ezartzean ere oinarritzen da.

Tolosako Udalaren Energia-jarduketen Plan Orokorra 4/2019 Legearen betekizun guztiak burutzen ditu.

2. Aplikazio-eremua

Energia-jarduketen Plan Orokor honek Tolosako Udalaren energia-kontsumoak jorratzen ditu. Energia kontsumoa hiru eremutan banatu da:

- Udal-eraikinak eta instalazioak,
- Argiteria publikoa,
- Ibilgailuak.

Eremu bakoitzean energia iturriak berezitu dira eta urteetan zehar izan duten bilakaera aztertu da. Horrez gain, udal energia berriztagarriak ere aztertu dira. Informazio honekin energia-diagnostikoa jorratu da.

Energia-diagnostikoarekin bat, eraikinen Auditoretza Energetikoak eta Efizientzia Energetikoaren Ziurtagiriak batu dira.

4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, zenbait helburu ezartzen ditu administrazio publikoen jarduera-eremuan:

- 2050erako % 60 gutxitu beharko dute haien energia-kontsumoa; eta tarteko helburu gisa, 2030erako % 35 gutxituko dute (oinarrizko erreferentzia-mailarekiko).
- Administrazio publiko bakoitzak energia berriztagarrien instalazioak izan beharko ditu, hauen kontsumoaren % 32 zuzkitzeko adinakoak (ustiapen termikoko sistemak nahiz argindarra sortzekoak barne direla).
- B kalifikazio energetikoa baino maila baxuagoa duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzaren eraikinen % 40k kalifikazio hori hobetu beharko du B mailaraino, gutxienez, 2030. urtea baino lehen.

Tolosako Udalaren Energia-jarduketen Planak zehazki jorratuko ditu 2030erako helburuak lortzeko neurriak eta jarduketak. 2050erako helburuak lortzeko jarduketak zehaztasun gutxiagoz jorratuko ditu.

Tolosako Udalaren Energia-jarduketen Planak Tolosako herritar guztien parte-hartzea kontutan izan du, eta horretarako bere esku dauden tresna guztiak erabili ditu: bilera publikoak, komunikazioa interes-taldeekin, eta abar.

Txosten honek Heziketa-, Sentsibilizaio- eta Komunikazio-Planak barne hartzen ditu.

Helburuak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, bakoitzak bere jarduera-eremuaren barruan, irizpide orokor gisa, 2050erako % 60 gutxitu beharko dute energia-kontsumoa; eta tarteko helburu gisa, 2030erako % 35 gutxituko dute **(4/2019 Legearen 16. Artikulua, 2. puntua).**

- Lege hau indarrean sartzen denetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek energia elektrikoa erosteko egiten dituzten lizitazioetan erositako energiaren % 100 jatorri berriztagarrikoa izatea exijituko da **(4/2019 Legearen 17. Artikulua, 1. puntua).**

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak 2030erako energia berriztagarriez baliatutako instalazioak eduki behar ditu eraikin guztietan, administrazio horren kontsumoaren % 32 zuzkitzeko adinakoak, ustiapen termikoko zein elektrizitatea sortzeko sistemak barne **(4/2019 Legearen 17. Artikulua, 3. puntua).**

- Eraikinen energia-kontsumoak ezagutzeko, kontrolatzeko eta murrizteko, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen titulartasuneko eraikin guztiek Euskadiko Efizientzia Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan behar bezala inskribatutako ziurtapen energetikoa eduki behar dute, lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean **(4/2019 Legearen 19. Artikulua, 1. puntua).**

- B kalifikazio energetikoa baino maila baxuagoa duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzaren eraikinen % 40k kalifikazio hori hobetu beharko du B mailaraino, gutxienez, 2030. urtea baino lehen, salbu eta 3.2 artikuluaren arabera justifikatutako arrazoi bat dagoen **(4/2019 Legearen 19. Artikulua, 2. puntua).**

Tolosako Udalak bigarren eta laugarren helburuak betetzen ditu jadanik. Beste helburuak Tolosako Udalaren Energia-jarduketa Planaren bitartez lortuko dira.

Argindarra %100 jatorri berriztagarriakoa da eta erosketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazio zentralaren bitartez egiten da (2019tik). Argindarraren hornitzailea Iberdrola Clientes S.A.U. da.

Tolosako Hiri-mugikortasuneko plana 2020an onartu zen.

3. Jarduketen koordinazioa: Jasangarritasun energetikoaren batzordea

Jasangarritasun energetikoaren batzordea jarduketen koordinazioaren arduraduna izango da. Tolosako Udalak batzordea eratuko du, baita eginkizunak eta izendapenak onartu ere.

Jasangarritasun energetikoaren batzordearen eginkizun[1] nagusiak hauek dira:

a) 11. artikuluan aipatzen den inbentarioa onetsi dadin proposatzea.

b) Lege hau betetzeko hartzen diren neurriak gauzatzen ari direla eta legean ezarritako helburuak betetzen ari direla gainbegiratzea eta bermatzea.

d) Aldian behin energia-jarduketen plana zein egoeratan duten eta zenbat garatu den adieraztea.

[1] 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, 9. artikulua

4. Energia-diagnostikoa

4.1. Tolosako udalaren energia-kontsumoa

Atal honetan Tolosako Udalaren energia kontsumoaren inbentarioa adierazten da. Inbentarioa hurrengo eremuetan banatzen da: **eraikinak eta instalazioak, argiteria publikoa eta ibilgailuak**. Datu hauek fakturetatik lortutakoak dira. Datuak 2019tik 2025ra doaz. Datu hauek erreferentzia-maila aukeratzeko erabiliko dira geroago.

Lehenik, inbentarioaren laburpen bat azalduko da. Bigarren eranskinean kontsumoa (kWh) eta gastuaren (eurotan) xehetasunak aurkitzen dira.

	2019		2020		2021		2022		2023		2024		2025	
	KONTSUMOA (kWh)	GASTUA (€)	KONTSUMOA (kWh)	GASTUA (€)	KONTSUMOA (kWh)	GASTUA (€)	KONTSUMOA (kWh)	GASTUA (€)	KONTSUMOA (kWh)	GASTUA (€)	KONTSUMOA (kWh)	GASTUA (€)	KONTSUMOA (kWh)	GASTUA (€)
ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK	8.952.651	534.174	6.930.106	420.408	8.424.315	601.794	7.826.612	845.262	5.053.251	549.489	7.033.572	701.120	7.271.197	810.724
ARGITERIA PUBLIKOA	1.169.618	158.408	1.129.698	139.614	1.022.855	106.485	891.345	197.885	836.750	217.320	820.366	185.879	817.237	154.117
IBILGAILUAK	97.789	9.530	65.416	7.816	63.394	9.086	76.008	13.043	42.232	6.099	98.031	13.050	109.579	13.523
GUZTIRA	10.220.058	702.112	8.125.220	567.839	9.510.565	717.365	8.793.965	1.056.189	5.932.233	772.909	7.951.968	900.049	8.198.012	978.364

Taula 1. Tolosako Udalaren inbentario energetikoaren laburpena
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Kontsumo handiena duen eremua Eraikinak eta instalazioak da, eta, ondoren, Argiteria publikoa eta flota mugikorra, ordena horretan, 2019tik 2025era bitarteko serie historiko osoan. Eraikin eta instalazioetako energia-kontsumoa beste bi eremuetakoa baino nabarmen handiagoa da.

Serie historiko honen kontsumo handiena 2019an izan zen (10.220.058 kWh), eta kontsumo txikiena 2023an (5.932.233 kWh). 2023an Kiroldegia itxita egon zen ia 6 hilabetez. Horregatik Kiroldegiaren kontsumo jetsiera anomala bat izan zen. 2023an ere Udaletxeko eta Eskoletako argiteria obrak egin ziren, beraz eraikin horietan jetsiera arrazoizkoa da. Hauek dira arrazoi nagusiak jaitsiera hau izateko.

2025eko kontsumoa (8.198.012 kWh) 2019koa baino % 19,79 txikiagoa izan zen.

Kontsumo horiei lotutako energia gastuari dagokionez, gastu handiena 2022an izan zen (1.056.189 €), Ukrainako gerraren ondorioz energiaren prezioak igo zirelako. Gastu txikieneko urtea 2020. urtea izan zen (567.839 €), pandemiaren eta konfinamenduan izandako kontsumoaren gainbeheraren ondorioz. 2025ean energiaren gastua (978.364 €) 2019an baino % 39,35 handiagoa izan zen, energiaren prezio altuek jarraitzen dutelako.

Hurrengo irudiak 2019tik 2025era bitarteko kontsumoaren bilakaera erakusten du, eremuaren arabera xehatuta.



Irudi 1. Tolosako Udalaren kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan eremu bakoitzeko
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

2025. urteari dagokionez, informazio osoa duen azken urteari dagokionez, honako hau da energia kontsumoaren banaketa arloka: eraikinek eta instalazioek energia guztiaren % 89 kontsumitu zuten, argiteria publikoak % 10 eta flota mugikorrak % 1.



Irudi 2. Tolosako Udalaren kontsumoa eremu bakoitzeko 2025. urtean
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Hurrengo irudian, 2019ko eta 2025eko guztizko kontsumoaren eta gastuaren bilakaera erakusten da. Grafikoki ikus daiteke kontsumoak behera egiten duela eta gastuak gora egiten duela.



Irudi 3. Tolosako Udalaren kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan eremu bakoitzeko
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Ondorengo taulak Tolosako Udalaren energia-kontsumoa erakusten du, erregai eta elektrizitate motaren arabera banakatuta. Serie historiko osoan, gas naturala da gehien kontsumitzen den erregaia. Kontsumo hori eraikinetan bakarrik gertatzen da. Ondoren elektrizitatea dago, bai argiteria publikoan, bai eraikin eta instalazioetan. Hirugarren lekuan, diesel kontsumoa ageri da, flota mugikorrean oso-osorik gertatzen dena.

Laugarren lekuan, gasolina dago, flota mugikorrak eta instalazioek (sorgailuak[2]) kontsumitzen dutena. Azkenik, 2025ean biomasaren kontsumoa agertzen da, aurretik inolako kontsumorik izan ez zuena.

	ARGINDARRA		GAS NATURALA		DIESELA		GASOLINA		BIOMASA		GUZTIRA
	kWh	%	kWh	%	kWh	%	kWh	%	kWh	%	
2019	3.692.131	36,13%	6.424.144	62,86%	61.560	0,60%	42.222	0,41%	0	0,00%	10.220.058
2020	3.331.835	41,01%	4.714.680	58,03%	29.885	0,37%	48.819	0,60%	0	0,00%	8.125.220
2021	3.375.978	35,50%	6.061.138	63,73%	24.182	0,25%	49.267	0,52%	0	0,00%	9.510.565
2022	3.314.591	37,69%	5.391.857	61,31%	32.266	0,37%	55.251	0,63%	0	0,00%	8.793.965
2023	2.695.814	45,44%	3.188.496	53,75%	18.546	0,31%	29.377	0,50%	0	0,00%	5.932.233
2024	3.492.103	43,91%	4.358.324	54,81%	67.154	0,84%	34.388	0,43%	0	0,00%	7.951.968
2025	3.662.254	44,67%	4.365.880	53,26%	83.292	1,02%	33.967	0,41%	52.619	0,64%	8.198.012

Taula 2. Tolosako Udalaren energia-kontsumoa erregai bakoitzeko
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Hurrengo irudian kontsumo guztiaren bilakaera ikus daiteke, erregai motaren eta elektrizitatearen arabera.



Irudi 4. Tolosako Udalaren energia-kontsumoaren eboluzioa erregai mota bakoitzeko
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

[2] Generador

Hurrengo irudietan erregai bakoitzaren eta argindarraren bilakaera erakusten da, bereizita.



Irudi 5. Tolosako Udalaren argindar kontsumoaren eboluzioa
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Elektrizitatearen kontsumoa nahiko konstante mantendu da. 2025ean kontsumoa % 0,81 murriztu zen 2019arekin alderatuta.



Irudi 6. Tolosako Udalaren gas naturala kontsumoaren eboluzioa
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Gas naturalaren kontsumoak, bestalde, beherakada nabarmena izan du, baina kWh-tan gehien kontsumitzen den erregaia izaten jarraitzen du. 2025ean kontsumoa % 32,04 murriztu zen 2019arekin alderatuta.



Irudi 7. Tolosako Udalaren diesela kontsumoaren eboluzioa
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Diesel kontsumoak behera egin du 2019tik 2023ra, eta, gero, 2025era arte handitu da. 2025ean kontsumoa % 35,30 handitu zen 2019arekin alderatuta.



Irudi 8. Tolosako Udalaren gasolina kontsumoaren eboluzioa
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Gasolinaren kontsumoak beherakada handia izan zuen 2022tik 2023ra, eta 2025era arte egonkor jarraitu zuen. 2025ean kontsumoa % 19,55 jaitsi zen 2019arekin alderatuta.



Irudi 9. Tolosako Udalaren biomasa kontsumoaren eboluzioa
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Biomasa 2025ean hasi da kontsumitzen lehen aldiz, eta ez da kontsumorik egon 2019 eta 2024 artean.

4.2. Eraikin eta instalazioen energia-kontsumoa

Ondoko irudian Eraikinak eta instalazioak eremuaren kontsumoa ikus daiteke, Tolosako Udalaren energia-eskari handieneko eremua baita. Jaitsiera handia ikusten da 2019tik 2020ra (pandemiaren urtea) eta 2022tik 2023ra (lehenago aipatu denez, nagusiki Polikiroldegia jarduerarik gabe egon zelako ia 6 hilabete 2023an). Kontsumoa % 18,78 jaitsi da 2019tik 2025era.



Irudi 10. Eraikinak eta instalazioak eremuaren energia-kontsumoaren eboluzioa
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Ondorengo taulak kontsumoaren xehetasuna erakusten du, erregai motaren eta elektrizitatearen arabera. Gas naturala da gehien kontsumitzen den erregaia, eta, ondoren, elektrizitatea, biomasa (2025etik aurrera) eta gasolina (sorgailua).

	ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK KONTSUMOA (kWh)				
	ARGINDARRA	GAS NATURALA	BIOMASA	GASOLINA	GUZTIRA
2019	2.522.513	6.424.144	0	5.993	8.952.651
2020	2.202.137	4.714.680	0	13.288	6.930.106
2021	2.353.123	6.061.138	0	10.054	8.424.315
2022	2.423.246	5.391.857	0	11.508	7.826.612
2023	1.859.064	3.188.496	0	5.691	5.053.251
2024	2.671.737	4.358.324	0	3.511	7.033.572

	ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK				
	KONTSUMOA (kWh)				
	ARGINDARRA	GAS NATURALA	BIOMASA	GASOLINA	GUZTIRA
2025	2.845.017	4.365.880	52.619	7.681	7.271.197

Taula 3. Energia kontsumoa eraikin eta instalazioetan erregai mota bakoitzeko banatuta
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Udaletxean eta brigadaren eraikinean ibilgailu elektrikoak kargatzeko kargagailuak daude. Kargagailu hauek CUPS ES0411000000001032EA (Udaletxea) eta CUPS ES0021000003460884DW (Brigada) -etatik hartzen dute energia. Orain arte, ezinezko da energi honen jatorria bereiztu. Beraz, eraikinen kontsumoan ibilgailu elektrikoen kontsua barne dago. Oriangoz, ibilgailu elektrikoen kontsumoa txikia da.

Hurrengo irudiak balio horiek berak erakusten ditu formatu grafikoan.



Irudi 11. Energia kontsumoaren eboluzioa eraikin eta instalazioetan erregai mota bakoitzeko banatuta
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Eraikinen kontsumoa aztertu da 2025. urterako. Usabal Kiroldegiak Eraikinak eta instalazioak eremuko energiaren % 63,46 kontsumitzen du, eta kontsumo handieneko eraikina da, gainerakoekiko alde handiarekin. Azterketa horrekin jarraituz, energia-kontsumo handiena duten 10 eraikinak hautatu dira. 10 eraikin horiek Eraikinak eta instalazioak areako kontsumoaren % 89,90 dira. Usabal Kiroldegiaren ondoren udaletxea eta Samaniego LH daude. Hurrengo irudian energia-kontsumoak ageri dira.



Irudi 12. Kontsumo handieneko eraikinak 2025. urtean
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

4.3. Argiteria publikoaren energia-kontsumoa

Argiteria publikoko elektrizitate kontsumoak etengabeko beherakada izan du 2019tik 2020ra, gauzatutako energia efizientziaren hobekuntzen ondorioz. 2025eko jaitsiera, 2019koarekin alderatuta, % 30,13koa da.



Irudi 13. Argietaria publikoa eremuaren energia kontsumoaren eboluzioa
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Argiteria publikoaren energia-kontsumo guztia argindarra da.

4.4. Ibiligailuen energia-kontsumoa

Flota mugikorraren eremuari dagokionez, kontsumoak aldaketak izan ditu 2019-2025 denboraldian. 2025ean kontsumoa 2029arekin alderatuta % 12,06 handiagoa da.



Irudi 14. Ibilgailuak eremuaren energia-kontsumoaren eboluzioa
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Ondorengo taulak eremu honetako kontsumoaren banakapena erakusten du, erregai motaren arabera (diesela eta gasolina).

	IBILGAILUAK KONTSUMOA (kWh)		
	DIESELA	GASOLINA	GUZTIRA
2019	61.560	36.229	97.789
2020	29.885	35.530	65.416
2021	24.182	39.213	63.394
2022	32.266	43.743	76.008
2023	18.546	23.686	42.232
2024	67.154	30.877	98.031
2025	83.292	26.287	109.579

Taula 4. Ibilgailuak eremuaren energia-kontsumoa erregai mota bakoitzeko banatuta
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Hurrengo irudian, aurreko taulako balioak grafikoki erakusten dira.



Irudi 15. Ibilgailuak eremuaren energia-kontsumoaren eboluzioa erregai mota bakoitzeko banatuta
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Tolosako Udalak 5 ibilgailu elektrikoen jabea da. Ibilgailu hauen kontsumoa (argindarra) eraikinen barne kontabilizatuta dago. Karga puntuek eraikinen CUPSetatik hartzen dute argindarra eta ibilgailuen kontsumoa eraikinen kontsumoarekin bat agertzen da fakturetan. Plana lantzeko garaian, ez zegoen bi kontsumoen banaketa egiteko aukera (4.2. atalean adierazi da).

4.5. Energia berriztagarriak

Atal honetan, Tolosako Udalaren 2019tik 2025era bitarteko energia berriztagarrien kontsumoak erakusten dira. Aldi horretan, energia berriztagarri nagusia autokontsumorako energia elektriko fotovoltaikoa izan da. 2025etik, biomasa kontsumitzen hasi da.

Bi instalazio fotovoltaikoak daude: Ferialekua_1 (100 kW) eta Uzturpe (100 kW) izenekoak. Instalazio hauek teilatuetan aurkitzen dira. Lehenengoa 2021. urtean martxan jarri zen, eta bigarrena 2023an.

	FERIALEKU_1 kWh	UZTURPE kWh	GUZTIRA kWh
2019	0	0	0
2020	0	0	0
2021	1.048	0	1.048
2022	104.404	0	104.404
2023	102.484	48.488	150.973
2024	97.470	94.651	192.121
2025	99.406	100.680	200.086

Taula 5. Argindarraren sorkuntza Tolosako Udalaren instalazio fotovoltaikoetan
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Aurreko taulan instalazio fotovoltaikoetan lortutako argindar sorkuntza adierazten da.

Hurrengo taulak fakturatutako energia elektrikoaren (banaketa-saretik datorren energia elektrikoa) eta autokontsumituaren (instalazio fotovoltaikoetako jatorria) arabera banakatutako elektrizitate-kontsumoa erakusten du.

	ERAIKINAK FAKTURATUTA kWh	INSTALAZIOAK FAKTURATUTA kWh	ARGITERIA PUBLIKOA FAKTURATUTA kWh	ERAIKINAK AUTOKONTSUMOA kWh	INSTALAZIOAK AUTOKONTSUMOA kWh	ARGITERIA PUBLIKOA AUTOKONTSUMOA kWh	GUZTIRA FAKTURATUTA kWh	GUZTIRA AUTOKONTSUMOA kWh	GUZTIRA ARGINDARRA kWh
2019	2.353.904	168.609	1.169.618	0	0	0	3.692.131	0	3.692.131
2020	2.037.743	164.394	1.129.698	0	0	0	3.331.835	0	3.331.835
2021	2.203.264	149.859	1.022.855	0	0	0	3.375.978	0	3.375.978
2022	2.224.263	145.164	891.345	53.819	0	0	3.260.772	53.819	3.314.591
2023	1.599.776	154.124	836.750	105.151	12	0	2.590.650	105.163	2.695.814
2024	2.376.198	165.167	820.366	130.353	19	0	3.361.731	130.372	3.492.103
2025	2.543.243	168.458	817.237	133.316	0	0	3.528.938	133.317	3.662.254

Taula 6. Argindarraren kontsumoa Tolosako Udalean eta kontsumo mota
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Ikus daitekeenez, fakturatutako energiaren pisua autokontsumitutako energia elektrikoarena baino askoz handiagoa da. 2025ean, adibidez, autokontsumitutako energia kontsumitutako energia elektriko guztiaren % 3,64 izan zen.

Ondorengo taulak biomasaren kontsumoa erakusten du. Kontsumoa 2025ean hasiko da.

	BIOMASA
	kWh
2019	0
2020	0
2021	0
2022	0
2023	0
2024	0
2025	52.619

Taula 7. Biomasa kontsumoaren eboluzioa
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Taula honek Tolosako Udalaren kontsumo berriztagarria guztia erakusten du. 2025ean, kontsumo berriztagarria 185.935 kWh-ra iritsi zen.

	ARGINDARRA BERRIZTAGARRIA	BIOMASA	GUZTIRA
	kWh	kWh	kWh
2019	0	0	0
2020	0	0	0
2021	0	0	0
2022	53.819	0	53.819
2023	105.163	0	105.163
2024	130.372	0	130.372
2025	133.317	52.619	185.935

Taula 8. Energia berriztagarria kontsumoaren eboluzioa eta erregai mota
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Azkenik, hurrengo taulak Tolosan sortutako energia berriztagarriaren kontsumoa, azken energiaren kontsumo osoa eta azken kontsumoan 2025ean izandako energia berriztagarriaren ehunekoa erakusten ditu. Balio hori % 2,27koa izan zen.

Amaierako kontsumoa 2025. urtean (kWh)	8.198.012
Energia berriztagarrien kontsumoa 2025. urtean (kWh)	185.935
Energia berriztagarria amaierako kontsumoan Tolosako Udalean 2025. urtean (%)	2,27%

Taula 9. Energia berriztagarria kontsumoa amaierako energia-kontsumoan Tolosako Udalean 2025. urtean
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

4.6. Lehendik dauden eraikinen kalifikazio energetikoa

Tolosako Udalak bere jabetzan dituen eraikinen efizientzia energetikoaren ziurtagirien kalifikazioak taula moduan gordetzen ditu. Taula honek, eraikin, lokal eta pisu guztien inbentarioa osatzen du.

Taula hau III. eranskinean kontsulta daiteke.

5. Energia-jarduketen plana

5.1. Energia-kontsumoaren oinarrizko erreferentzia maila

Behin kontsumoei buruzko informazio aztertu ondoren, eta 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, bere 14. Artikuluan adierazten den bezala, energia-kontsumoaren oinarrizko erreferentzia-maila ezarriko da. 2016, 2017 eta 2018 urteko datuak eskuragarri ez daudenez, 2019koak hartuko dira oinarrizko erreferentzia-mailatzat, salbuespen batzuekin:

- Argiteria Publikoarentzat 2016ko kontsumo-datuak hartuko dira, hemendik aurrea zenbait jarduketa egin direlako. 2016tik geroztik hurrengo koadroetan argiteria LED teknologiara aldatu da: K1, K2, K3, K7, K9, K10, K12, K14, K15, K16, K18, K19, K23, K26, K28, K29, K30, K31, K35, K37, K41, K47, K48, K49, K51, K52, K53.

- Usabal Polikiroldegiarentzat 2013ko kontsumo-datuak hartuko dira erreferentzia gisa, urte honetatik aurrera zenbait jarduketa egin direlako: Igerilekuen berokuntza-sisteman bero berreskuragailu bat jarri da, ACSen 20.000 litroko biltegitik 5.000 litroko biltegira pasatu da eta argiteriaren zati handi bat LED teknologiara aldatu da.

Hurrengo taulan oinarrizko erreferentzia-mailaren kontsumoaren laburpena adierazten da, eremu bakoitzeko.

EREMUA	KONTSUMOA OINARRIZKO ERREFERENTZIA MAILAN (Usabal polikiroldegiarentzat 2013.n urtea eta Argiteria publikoarentzat 2016.n urtea)					
	GAS NATURALA kWh	BIOMASA kWh	ARGINDARRA kWh	DIESELA kWh	GASOLINA kWh	GUZTIRA kWh
ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK	7.521.723	0	2.285.342	0	0	9.807.065
ARGITERIA PUBLIKOA	0	0	1.457.625	0	0	1.457.625
IBILGAILUAK	0	0	0	61.560	36.229	97.789
GUZTIRA	**7.521.723**	**0**	**3.742.967**	**61.560**	**36.229**	**11.362.479**

Taula 10. Tolosako Udalaren kontsumo energetikoa inbentarioaren eremuetan eta erregai bakoitzeko oinarrizko erreferentzia-mailan
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta



Irudi 16. Tolosako Udalaren kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan inbentarioaren eremu bakoitzeko
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Eraikin eta instalazioetan kontsumoaren %86 ematen da. Jarraian, Argiteria Publikoan kontsumoaren %13. Eta azkenik, ibilgailuetan %1.

Eraikin eta instalazioen barnean Usabal Polikiroldegia nabarmentzen da. Eraikin honetan kontsumo handiena ematen da gainerako eraikin eta instalazioekiko.



Irudi 17. Usabal Polikiroldegian eta gainerako eraikin eta instalazioen kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

5.2. Energia-jarduketen unitateen definizioa

Energia-jarduketen unitateak definituko dira, Tolosako Udalaren barne antolaketaren eta energia-jarduketaren eremuaren arabera.

Kodea	Energia-jarduketen unitatea	Eraikina/Instalazioa/Flota	Eremua
ER-1	Kultur Etxea	Kultur Etxea	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-2	Gorosabel Zaharra	Gorosabel Zaharra	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-3	Aranburu Jauregia	Aranburu Jauregia	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-4	Samaniego Ikastetxea	Samaniego Ikastetxea	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-5	Zerkausia Merkatua	Zerkausia Merkatua	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-6	Haurreskola	Haurreskola	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-7	Udaletxea (eraikin administratiboa eta historikoa)	Udaletxea (eraikin administratiboa eta historikoa)	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-8	Leidor Eraikinaren efizientzia energetikoaren hobekuntza	Leidor Eraikina	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-9	Unipapel Eraikina	Unipapel Eraikina	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-10	Urkizuko Auzoelkartea	Urkizuko Auzoelkartea	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-11	Beotibar Frontoia	Beotibar Frontoia	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-12	Amarotz Auzo Etxea	Amarotz Auzo Etxea	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-13	Samaniego Ikastetxearen haurreskola eraikina	Samaniego Ikastetxea haurreskolaren eraikina	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-14	Zuloaga Txiki eraikinaren efizientzia energetikoaren hobekuntza	Zuloaga Txiki	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-15	Beste eraikinak	Beste eraikinak	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
ER-16	Usabal Polikiroldegia	Usabal Polikiroldegia	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak
AP-1	Argiteria Publikoa	Argiteria Publikoa	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak

Taula 11. Energia-jarduketa unitateen definizioa
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

5.3. Energia-kontsumoa 2030. urterako proiekzioa (BaU)

Tolosako Udalak 2030ean BaU agertoki batean (Business as usual) kontsumituko duen energia kalkulatu da, biztanleriaren bilakaeran oinarrituta. Horretarako, 2019ko eta 2025eko biztaleriaren serie historikoa aztertu da. 2019tik 2025era bitarteko urteko batez besteko hazkundea kalkulatu da, eta 2025eko balioari aplikatu zaio. Biztanleriaren hazkunde zenbatetsiak Udalaren kontsumoa handitzea ekarriko ez duela erabaki da. Beraz, 2030ean BaU agertokiko kontsumoa 2025eko bera da.

	Datu historikoak							Proiekzioa				
Biztanleria	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030
Tolosa	19.270	19.400	19.688	19.706	19.929	19.961	20.048	20.178	20.307	20.437	20.567	20.696

Taula 12. Tolosako biztanleriaren eboluzioa eta proiekzioa 2030. urterarte
Iturria: EUSTAT eta Global Factor-rek landuta



Irudi 18. Tolosako Udalaren kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan eremu bakoitzeko
Iturria: EUSTAT eta Global Factor-rek landuta

5.4. Helburuak

1. helburua:

4/2019 Legearen 16. artikuluaren arabera, 2030ean energia kontsumoa % 35 murriztu behar da erreferentziazko oinarrizko mailaren kontsumoarekin alderatuta. Hurrengo grafikoak erakusten duen bezala, 2025ean jada % 27,85 murriztu da energia kontsumoa erreferentziazko oinarrizko mailarekin alderatuta, Tolosako Udalak aurreko urteetan egindako jarduketen ondorioz. Hala ere, 2030era arte kontsumoa % 7,15 murriztu behar da helburua lortzeko.



Irudi 19. Tolosako Udalaren kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan eremu bakoitzeko
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

2. helburua:

4/2019 Legearen 17. artikuluaren arabera, udalerrian sortutako eta udalak kontsumitutako energia berriztagarriaren kontsumoak kontsumitutako azken energiaren % 32 izan behar du gutxienez.

3. helburua:

4/2019 Legearen 19. Artikulua, 2. puntua. B kalifikazio energetikoa baino maila baxuagoa duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzaren eraikinen **% 40**k kalifikazio hori hobetu beharko du B mailaraino, gutxienez, 2030. urtea baino lehen, salbu eta 3.2 artikuluaren arabera justifikatutako arrazoi bat dagoen.

5.5. Energia-jarduketak

Energia-jarduketak IV. eranskinean adierazten dira.

5.6. Helburuen lorpena 2030. urtean planarekin

Lehenego adierazi denez, oinarrizko erreferentzia maila hau planaren abia puntua da:

EREMUA	KONTSUMOA OINARRIZKO ERREFERENTZIA MAILAN (Usabal polikiroldegiarentzat 2013.n urtea eta Argiteri publikoarentzat 2016.n urtea)					
	GAS NATURALA kWh	BIOMASA kWh	ARGINDARRA kWh	DIESELA kWh	GASOLINA kWh	GUZTIRA kWh
ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK	7.521.723	0	2.285.342	0	0	9.807.065
ARGITERIA PUBLIKOA	0	0	1.457.625	0	0	1.457.625
IBILGAILUAK	0	0	0	61.560	36.229	97.789
GUZTIRA	**7.521.723**	**0**	**3.742.967**	**61.560**	**36.229**	**11.362.479**

Taula 13. Tolosako Udalaren energia-kontsumoa oinarrizko erreferentzia mailan
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Energetia-jarduketen Planeko neurriak martxan jartzen direnean, eta lortutako murrizketak kontabilizatu ondoren, kontsumo balio hauek lortuko dira 2030ean:

EREMUA	KONTSUMOA 2030. urtean neurriekin					
	GAS NATURALA kWh	BIOMASA kWh	ARGINDARRA kWh	DIESELA kWh	GASOLINA kWh	GUZTIRA kWh
ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK	567.163	3.985.700	2.165.227	0	0	6.549.632
ARGITERIA PUBLIKOA	0	0	399.524	0	0	399.524
IBILGAILUAK	0	0	0	83.292	26.287	109.579
GUZTIRA	**567.163**	**3.985.700**	**2.564.751**	**83.292**	**26.287**	**7.227.193**

Taula 14. Tolosako Udalaren energia-kontsumoa 2030. urtean neurriekin
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Beraz, Tolosako Udalaren amaierako energia-kontsumoa 11.362.479 kWh-tik 7.227.193 kWh-ra jaitsi da. Horrek esan nahi du **% 36,39** murriztu dela, eta plan honen **1. helburua** lortu.



Irudi 20. Lehenengo helburuaren lorpena 2030. urtean
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

2. helburuari dagokionez, honako taula honek plan honetako neurriak abian jarrita 2030ean lortuko dituzten balioak erakusten ditu. Ikusten denez, helburu hori betetzen da, azken energia-kontsumoan udalerrian ekoitzitako energia berriztagarriaren kontsumoa **% 59,82** baita.

Amaierako kontsumoa 2030. urtean (kWh) planarekin	7.227.193
Energia berriztagarrien kontsumoa 2030. urtean (kWh) planarekin	4.323.037
Energia berriztagarria amaierako kontsumoan Tolosako Udalean 2030. urtean (%) planarekin	59,82%

Taula 15. Bigarren helburuaren lorpena 2030. urtean
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Azkenik, **3. helburua** betetzeko, egiten diren eraikinen hurrengo auditoria energetikoek erakutsi beharko dute B letratik beherako kalifikazioa duten eraikinen % 40k kalifikazio hori lortuko dutela 2030ean. Helburu hori lortzeko, auditoria energetikoek beharrezko neurriak hartuko dituzte.

6. Beste jarduketak eta planak

6.1. Eraikin berrien eta eraberritze integralak jasan behar dituzten eraikinen kalifikazio energetikoa

Tolosako Udalak eraikin berriei eta eraberritze integrala jasan behar duten eraikinei, 4/2019 Legean, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren 20. Artikuluan adierazten dena betetzen du:

"1.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen titulartasuneko eraikin berriek energia-kontsumo ia nulukoak izan behar dute. Hala izan beharko dute aurretik dauden eraikinek ere, eraberritze integralak egiten badizkiete, obra horiek lege hau onartu eta bi urte geroagotik aurrera hasten badira, edo aplikagarri dakieken araudiak hala esaten duenetik Aurrera.

2.- Betebehar hori salbuetsi daiteke kasu hauetan, baldin eta kalifikazio energetikoa hobetzearen bideragarritasunik eza teknikoki justifikatzen bada:

a) Eraikin eta monumentu ofizialki babestuak badira, kultura-ondare aitortutako ingurune baten zati direlako edo balio arkitektonikoa edo historikoa dutelako.

b) Bi urtean edo gutxiagoan erabiltzekoak diren behin-behineko eraikuntzak badira.

c) Industria- eta nekazaritza-eraikinak edo haien zatiak, baldin eta lantegi modura edo industria- eta nekazaritza-prozesuetarako erabiltzen badira eta ez bizitegi gisa.

d) Isolatuta dauden eraikinak edo eraikin-zatiak, baldin eta 50 metro koadro baino gutxiagoko azalera erabilgarria badute.

e) Urtean lau hilabete baino gutxiagoan edo urtean zehar denbora mugatu batean erabiltzen diren eraikinak edo eraikin-zatiak, baldin eta urte osoan erabiliz gero gastatuko luketen energiaren % 25 baino gutxiagoko energia-kontsumoa izango dutela aurreikusten bada, jabearen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez."

6.2. Eraikin eta instalazioen auditoretza energetikoak

Tolosako Udalak 254/2020 Dekretuak auditoretzei buruz 19. Artikuluan adierazten duena betetzen du. Udalak eguneratuta dauzka eraikin eta argiteria publikoaren auditoretzak. Hurrengo taulan auditoretzen xehetasunak adierazten dira.

ERAIKINA	AZALERA ERABILGARRIA (m^2)	AZALERA ERAIKIA (m^2)	ERAIKIN MOTA ERABILERAREN ARABERA	AUDITORETZA EGINDAKO URTEA
KULTUR ETXEA	1.880,31		Zerbitzuak/kultura	2021
PABLO GOROSABEL (GOROSABEL ZAHARRA)	2.862,30		Zerbitzuak	2021
ARANBURU JAUREGIA	1.240,83		Zerbitzuak	2021
SAMANIEGO HERRI ESKOLA	3.004,92		Zerbitzuak/hezkuntza	2021
HAUR ESKOLA ABASTOS	1.320,77		Zerbitzuak/hezkuntza	2021
LEIDOR	1.980,29		Zerbitzuak/kultura	2021
UNIPAPEL	4.674,96		Zerbitzuak	2021
ASOCIACIÓN VECINAL URKIZU	135,70		Zerbitzuak	2021
BEOTIBAR PILOTALEKUA (FRONTÓN)	1.695,19		Zerbitzuak/kultura/kirolak	2021
AMAROTZ AUZO ETXEA	395,21		Zerbitzuak	2021
ZULOAGA TXIKI (ALBERGUE)	301,98		Zerbitzuak	2021
SAMANIEGO BERRIA IKASTOLA (INFANTIL)	1.647,50		Zerbitzuak/hezkuntza	2021
MERCADO ZERKAUSIA	1.120,00		Zerbitzuak/komertziala/kirolak	2021
UDALA (EDIFICIO ADMINISTRATIVO E HISTÓRICO))			Zerbitzuak	2021
ARGITERIA PUBLIKOA			Zerbitzuak	2025
USABAL POLIKIROLDEGIA	10.708,00		Zerbitzuak/kirolak	2025

Taula 16. Energia-auditoretzen zerrenda
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

6.3. Energia-jarduketen unitateen Energia-jarduketen Berariazko Planak

Jarduketak fitxetan antolatuko dira. Fitxa bakoitzak Energia-jarduketa Unitate bakarra adieraziko du. Horrela errazagoa izango da jarduketen banaketa eta ondorengo jarraipena egitea. Energia-jarduketa unitate bakoitzaren fitxak unitatearen berariazko plana adierazten du.

Kodea	Energia-jarduketen unitatea	Eraikina/Instalazioa/Flota	Eremua	Urtero energia aurrezpena (kWh/urte)	Urtero sorkuntza berriztagarria (kWh/urte)
ER-1	Kultur Etxea	Kultur Etxea	Eraikinak eta instalazioak	39.979,39	87.116,04
ER-2	Gorosabel Zaharra	Gorosabel Zaharra	Eraikinak eta instalazioak	66.006,66	0,00
ER-3	Aranburu Jauregia	Aranburu Jauregia	Eraikinak eta instalazioak	30.694,16	0,00
ER-4	Samaniego Ikastetxea	Samaniego Ikastetxea	Eraikinak eta instalazioak	74.421,65	171.330,16
ER-5	Zerkausia Merkatua	Zerkausia Merkatua	Eraikinak eta instalazioak	32.394,22	0,00
ER-6	Haurreskola	Haurreskola	Eraikinak eta instalazioak	26.055,98	0,00
ER-7	Udaletxea (eraikin administratiboa eta historikoa)	Udaletxea (eraikin administratiboa eta historikoa)	Eraikinak eta instalazioak	102.261,74	243.825,03
ER-8	Leidor Eraikina	Leidor Eraikina	Eraikinak eta instalazioak	32.692,69	0,00
ER-9	Unipapel Eraikina	Unipapel Eraikina	Eraikinak eta instalazioak	36.742,58	0,00
ER-10	Urkizuko Auzoelkartea	Urkizuko Auzoelkartea	Eraikinak eta instalazioak	3.056,86	0,00
ER-11	Beotibar Frontoia	Beotibar Frontoia	Eraikinak eta instalazioak	14.497,35	0,00
ER-12	Amarotz Auzo Etxea	Amarotz Auzo Etxea	Eraikinak eta instalazioak	1.312,67	0,00
ER-13	Samaniego Ikastetxearen haurreskola eraikina	Samaniego ikastetxea haurreskolaren eraikina	Eraikinak eta instalazioak	24.998,81	44.591,03
ER-14	Zuloaga Txiki	Zuloaga Txiki	Eraikinak eta instalazioak	1.089,24	0,00
ER-15	Beste eraikinak	Beste eraikinak	Eraikinak eta instalazioak	24.327,60	0,00
ER-16	Usabal Polikiroldegia	Usabal Polikiroldegia	Eraikinak eta instalazioak	2.649.828,70	3.590.239,45
AP-1	Argiteria publikoa	Argiteria Publikoa	Argiteria publikoa	967.374,00	0,00
IB-1	Udal ibilgailuak	Udal-ibilgailuak	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak	22.667,53	0,00
SB-1	Sorkuntza berriztagarria	Instalazio berriztagarri berriak	Udal-eraikinak, Udal-ekipamendua/-instalazioak	33.394,31	467.927,31
			GUZTIRA	4.127.734,31	4.137.101,71

Taula 17. Energia-jarduketa unitate bakoitzaren kontsumoa oinarrizko erreferentzia-mailan
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Murrizpen gehin lortuko duen energia-jarduketa unitatea Usabal Polikiroldegikoa da, %64arekin. Bigarren lekuan Argiteria publikoaren energia-jarduketa unitatea aurkitzen da, % 23arekin.



Irudi 21. Energia-jarduketa unitate bakoitzaren murrizpenaren portzentaia
Iturria: Tolosako Udaletik jasotako datuekin landuta

Hirugarren eranskinean energia-jarduketen unitateen berariazko planak aurkitzen dira.

6.4. Heziketa eta sentsibilizazio-planak

4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren 27. Artikuluaren eta 254/2020 Dekretua, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa bere 22. Artikuluaren arabera, administrazio publikoek Heziketa-plan bat prestatuko dute. Tolosako Udalak bere Heziketa-plana prestatuko du.

4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren 27. Artikuluan zehazki adierazten du:

"27. artikuloa – prestakuntza.

1.– Lege hau indarrean sartu eta urtebetera, 2. artikuluan adierazitako Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek plan bat onartu behar dute beren jarduera-eremuetako langileak aurrezpen eta efizientzia energetikoko tekniketan prestatzeko.

25.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek, berriz, lege hau indarrean sartu eta bi urteko epean onartu behar dute prestakuntza-plan hori.

2.– Plan horren helburua da energia kontsumitzen duten instalazioak erostearekin, mantentzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten kudeatzaileak eta teknikariak prestatzea energia aurrezteko eta efizientzia energetikoko tekniketan eta energia berriztagarrietan."

254/2020 Dekretuak, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, bere 22. Artikuloan zehazki adierazten du:

"1.– Administrazio publiko bakoitzak berari atxikitako sektore publikoko langileen prestakuntza eta sentsibilizaziorako plan bat egin beharko du, eta haren energia-jarduketen planaren barruan jasoko da hori.

2.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, prestakuntzarako zeharkako planak planifikatu, diseinatu eta ezartzea bultzatzeko eskumenen barruan, hainbat urtetarako prestakuntza-jarduerak planifikatu, diseinatu eta ezarri behar izango ditu jasangarritasun energetikoaren arloan, euskal administrazio publikoetako langile guztiei zuzenduta.

3.– Energia kontsumitzen duten instalazioak erostearekin, mantentzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten kudeatzaileak eta teknikariak prestatzeko izan beharko dira bereziki prestakuntza-jarduerak, eta aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa handitzeko eta energia berriztagarriak ezartzeko eta horiez baliatzeko teknikei buruzkoak izango dira.

4.– Halaber, garraioaren erabilera efiziente eta jasangarriari buruzko prestakuntza-ekintzak ere zehaztu beharko dira.

5.– Administrazio publiko bakoitzak aurrezpen eta eraginkortasun energetikoari buruzko informazioa emango die bere zerbitzura dauden langileei, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa lortzeko jarraibideak eta teknikak hedatuz, bitarteko hauek erabilita:

a) Sentsibilizazio-kanpainak.

b) Erabilera-teknikak eta jarraibideak ezartzeari buruzko gidaliburuak eta jardunbide egokiak zabaltzea, instalazioetan erabiltzen duten energiaren aurrezpen eta eraginkortasuna handiagoa lortzeko."

Tolosako Udalak heziketa-plan bat egingo du energia kontsumitzen duten instalazioak, energia berriztagarria ekoizteko instalazioak eta garraioa erosi, mantendu eta erabiltzearekin zerikusia duten kudeatzaile eta teknikarientzat, sentsibilizatzeko eta prestatzeko, eta irizpide jasangarriak udaleko arlo eta prozesu guztietan erabil daitezen. Heziketa-plan hori premien arabera berrituko da, eta langileek iraunkortasunaren eta energia-eraginkortasunaren arloan egiten dituzten proposamenei irekita egongo da. Energia aurrezteari eta eraginkortasunari buruzko informazioa ere zabalduko zaie Tolosako Udaleko gainerako langileei.

6.5. Komunikazio- eta Gardentasun-plana

Administrazio publikoek, 4/2019 legearen 6 h) Artikuluan jasotako herritarren parte-hartzearen printzipioarekin bat, finkatu beharreko mekanismoak ezarriko dituzte. Horrela, gizarte-eragileek, kontsumitzaileen elkarteek, erakunde publiko adituek, gizartearen ordezkariek eta langileen ordezkariek jasangarritasun energetikoko politiken diseinuan eta erabakietan benetan parte hartzen dutela ziurtaraziko da.[3]

Printzipio hau kontutan izateko:

Herritarrek jasangarritasun energetikoaren arloko politikak diseinatzen eta erabakiak hartzen parte hartuko dute, zuzenean edo elkarteen edo gizarte-ekonomiako eragileen bidez eta dagozkien arauek ezartzen dutena betez. Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua egon dadin saiakera egin behar da; kontuan hartu behar da ez dutela parte hartzeko modu bera batzuek eta besteek, eta, horrenbestez, konpentsazio-estrategiak aurreikusi beharko dira.[4]

2026ko irailaren 29an parte-hartze saio bat antolatu zen Planaren berri emateko eta herritarren ekarpenak batzeko.



[3] 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, 10. artikulua

[4] 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, h) 6. artikulua



Aurkezpena egin eta gero, galderak eta eztabaidarako eparru bat zabaldu zen. Informazio mota hau herritarrei berri emateko Udalak web orrian atal bat lantzen ari du. Plataforma hau herritarrentzat eskuragarri izango da.

Bestalde, Udala badago lan egiten Klima eta Energia plan batetan. Plan hau udalerri osoa kontutan hartzen duenez, herritarren eta enpresen iritzi eta iruzkinak jasotzeko kanalak zabalduko ditu.

Energia berriztagarrien arloan, aerotermiaren inguruan Udalak araudia zehazteko asmoa du. Aerotermia eta geotermia instalazioak sustatzeko neurriak ere hartu nahi ditu, ez bakarrik fotovoltaikoarentzat.

Udala instalazio minihidrauliko baten jabea da (Amezketan). Sortzen den argindar guztia saltzen da.

Komunitate energetiko bat antolatu da duela gutxi (instalazio fotovoltaikoa). Udala eta Gipuzkoako foro ALdundiak proiektu hay sustatu dute. Udalak, adibidez, bere teilatuetan instalazioa jartzeko baimena eman du.

Bestalde 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren 26. Artikuluaren arabera, neurriak publiko egin beharko dira. Artikulu honetan zehazten da publiko egin behar den informazioa eta epeak:

“Zehazki, lege hau indarrean sartu eta bi urtetik behin, gutxienez, administrazio bakoitzak txosten bat argitaratu beharko du, eta alderdi hauek, behintzat, nabarmendu beharko dira:

a) Energia-kontsumoa, eraikinen eta erabilitako energia-iturrien arabera banakatua
b) Egindako auditoretzak eta emaitzak.
d) Zer neurri hartu eta zer inbertsio egin diren energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa hobetzeko, eta energia berriztagarriak sortzen dituzten instalazioak ezartzeko; horrez gain, lortutako emaitzak ere adierazi beharko dira.
e) Lege honetan ezarritako betebeharrak gauzatzeko hartu dituzten konpromisoak zenbateraino bete dituzten.”[5]

[5] 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, 26. Artikulutik hartuta

7. Planaren aurrekontua eta finantziazioa

Energia-jarduketa bakoitzarentzat behar den inbertsioa eta itzulkina (urteetan) kalkulatuko da. Energia-jarduketa bakoitzeko dirulanguntzak ere aztertuko dira. Dirulaguntzen programa eta erakunde emailea ere jasoko dira. Adibide gisa, hurrengo taula hantzerako bat erabiliko da:

AURREKONTUA ETA FINANTZIAZIOA						
Kodea	Energia-jarduketen unitatea	Inbertsioa (€)	Aurrekontuaren arduraduna	Dirulaguntza-iturriak	Dirulaguntzak (€)	Aurrekontua (€)
ER-1	Kultur Etxea	267.454,11	Udala	EVE (Programa PREE 5000, GAUZATU ENERGIA)	20.000,00	Zenbatetsi gabe
ER-2	Gorosabel Zaharra	340.835,06	Udala	EVE (Programa PREE 5000, GAUZATU ENERGIA)	20.000,00	Zenbatetsi gabe
ER-3	Aranburu Jauregia	200.708,48	Udala	EVE (Programa PREE 5000, GAUZATU ENERGIA)	20.000,00	Zenbatetsi gabe
ER-4	Samaniego Ikastetxea	701.505,43	Udala	EVE (Programa PREE 5000, GAUZATU ENERGIA)	20.000,00	Zenbatetsi gabe
ER-5	Zerkausia Merkatua	36.853,05	Udala	EVE (Programa PREE 5000, GAUZATU ENERGIA)	20.000,00	Zenbatetsi gabe
ER-6	Haurreskola	59.045,26	Udala	EVE (Programa PREE 5000, GAUZATU ENERGIA)	20.000,00	Zenbatetsi gabe
ER-7	Udaletxea (eraikin administratiboa eta historikoa)	595.532,89	Udala	EVE (Programa PREE 5000, GAUZATU ENERGIA)	20.000,00	Zenbatetsi gabe
ER-8	Leidor Eraikina	57.786,71	Udala	EVE (Programa PREE 5000, GAUZATU ENERGIA)	20.000,00	Zenbatetsi gabe
ER-9	Unipapel Eraikina	162.411,28	Udala	EVE (Programa PREE 5000, GAUZATU ENERGIA)	20.000,00	Zenbatetsi gabe
